


**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA**



*Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren  
Estatistika Organo Berezia*



## ERAIKUNTZAREN ETA ETXEBIZITZEN ESTATISTIKA (EEEE) 2025eko 1. hiruhilekoa

Emaita nagusiak

### AURKIBIDEA

|                                                                                  |    |
|----------------------------------------------------------------------------------|----|
| TAULEN AURKIBIDEA .....                                                          | 2  |
| GRAFIKOEN AURKIBIDEA .....                                                       | 2  |
| 1. OBRA HANDIETAKO LIZENTZIAK .....                                              | 3  |
| 2. ESLEITUTAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERAREN HELMUGA .....                | 9  |
| 3. ESLEITUTAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK ..... | 13 |
| 4. ALDERDI METODOLOGIKOAK .....                                                  | 18 |

### TAULEN AURKIBIDEA

|          |                                                                                                                                         |    |
|----------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1. Taula | Obra handien lizentzia kopurua, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2025eko 1. hiruhilekoa .....                           | 3  |
| 2. Taula | Obra handien lizentzia kopurua, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2025eko 1. hiruhilekoko urteko metatutako datuak ..... | 6  |
| 3. Taula | Obra handien lizentziak, obraren xedearen arabera. 2025eko 1. hiruhilekoa .....                                                         | 9  |
| 4. Taula | Obra handien lizentziak, obraren xedearen arabera. 2025eko 1. hiruhilekoko urteko metatutako datuak .....                               | 11 |
| 5. Taula | Obra motaren eta lurralde historikoaren arabera aurreikusitako etxebizitzak. 2025eko 1. hiruhilekoa .....                               | 13 |
| 6. Taula | Obra motaren eta lurralde historikoaren arabera aurreikusitako etxebizitzak. 2025eko 1. hiruhilekoko urteko metatutako datuak .....     | 16 |

### GRAFIKOEN AURKIBIDEA

|             |                                                                                                                                         |    |
|-------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1. Grafikoa | Obra handien lizentzia kopurua, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2025eko 1. hiruhilekoa .....                           | 4  |
| 2. Grafikoa | Obra handien lizentzia kopurua, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2025eko 1. hiruhilekoko urteko metatutako datuak ..... | 7  |
| 3. Grafikoa | Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE 1998-2025 .....                    | 8  |
| 4. Grafikoa | Obra handien lizentziak, obraren xedearen arabera. 2025eko 1. hiruhilekoa .....                                                         | 10 |
| 5. Grafikoa | Obra handien lizentziak, obraren xedearen arabera 2025eko 1. hiruhilekoko urteko metatutako datuak .....                                | 12 |
| 6. Grafikoa | Obra motaren eta lurralde historikoaren arabera aurreikusitako etxebizitzak. 2025eko 1. hiruhilekoa ..                                  | 14 |
| 7. Grafikoa | Obra motaren eta lurralde historikoaren arabera aurreikusitako etxebizitzak. 2025eko 1. hiruhilekoko urteko metatutako datuak .....     | 17 |

### Informazio gehiago nahi izanez gero:

*Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia*  
*Donostia kalea, 1 - 01010 Gasteiz.*

Telefonoa: +34-945-01 69 61

Webgunea: [Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Etxebizitzaren arloko estatistikak](#)

Helbide elektronikoa: [estadísticas-vivienda@euskadi.eus](mailto:estadísticas-vivienda@euskadi.eus)



## 1. OBRA HANDIETAKO LIZENTZIAK

*EAE n emandako obra handiko lizentzien kopuruak behera egin du pixka bat: aurreko hiruhilekoan baino %2,4 gutxiago eta azken urtean baino %3,2 gutxiago.*

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikak (EEEE) ematen duen informazioaren arabera, 2025eko lehen hiruhilekoan, **Euskal Autonomia Erkidegoko** (EAE) udalek obra handiko 934 lizentzia eman dituzte guztira. Kopuru horrek aurreko hiruhilekoan emandakoak baino 23 lizentzia gutxiago eman direla esan nahi du (-%2,47 termino erlatiboetan) eta 31 lizentzia gutxiago (-%3,2) 2024ko lehen hiruhilekoan emandakoak baino.

### 1. Taula Obra handien lizentzia kopurua, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2025eko 1. hiruhilekoa

*(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta ehunekotan adierazitakoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)*

| OBRA HANDIETAKO LIZENTZIAK |                   | 2025eko 1. hiruhilekoa |             | Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza |              | Aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko aldakuntza |               |
|----------------------------|-------------------|------------------------|-------------|--------------------------------------|--------------|----------------------------------------------------|---------------|
|                            |                   | Kopurua                | %           | Kopurua                              | Ald. %       | Kopurua                                            | Ald. %        |
| EAE                        | <b>Guztira</b>    | <b>934</b>             | <b>%100</b> | <b>-23</b>                           | <b>-%2,4</b> | <b>-31</b>                                         | <b>-%3,2</b>  |
|                            | Eraikuntza berria | 96                     | %10,3       | 10                                   | %11,6        | 14                                                 | %17,1         |
|                            | Birgaitzea        | 825                    | %88,3       | -25                                  | -%2,9        | -46                                                | -%5,3         |
|                            | Eraispena         | 13                     | %1,4        | -8                                   | -%38,1       | 1                                                  | %8,3          |
| Araba                      | <b>Guztira</b>    | <b>221</b>             | <b>%100</b> | <b>32</b>                            | <b>%16,9</b> | <b>40</b>                                          | <b>%22,1</b>  |
|                            | Eraikuntza berria | 38                     | %17,2       | 13                                   | %52,0        | 4                                                  | %11,8         |
|                            | Birgaitzea        | 179                    | %81,0       | 22                                   | %14,0        | 37                                                 | %26,1         |
|                            | Eraispena         | 4                      | %1,8        | -3                                   | -%42,9       | -1                                                 | -%20,0        |
| Bizkaia                    | <b>Guztira</b>    | <b>486</b>             | <b>%100</b> | <b>-45</b>                           | <b>-%8,5</b> | <b>6</b>                                           | <b>%1,3</b>   |
|                            | Eraikuntza berria | 39                     | %8,0        | -6                                   | -%13,3       | 13                                                 | %50,0         |
|                            | Birgaitzea        | 444                    | %91,4       | -35                                  | -%7,3        | -9                                                 | -%2,0         |
|                            | Eraispena         | 3                      | %0,6        | -4                                   | -%57,1       | 2                                                  | %200,0        |
| Gipuzkoa                   | <b>Guztira</b>    | <b>227</b>             | <b>%100</b> | <b>-10</b>                           | <b>-%4,2</b> | <b>-77</b>                                         | <b>-%25,3</b> |
|                            | Eraikuntza berria | 19                     | %8,4        | 3                                    | %18,8        | -3                                                 | -%13,6        |
|                            | Birgaitzea        | 202                    | %89,0       | -12                                  | -%5,6        | -74                                                | -%26,8        |
|                            | Eraispena         | 6                      | %2,6        | -1                                   | -%14,3       | 0                                                  | %0,0          |

Lizentzia horien erdia baino gehiago (%52,0) Bizkaiko lurralde historikoan ematen dira (486). Gipuzkoan obra handiko 227 lizentzia eman dira (EAEko guztizkoaren %24,3) eta Araban 221 (guztizkoaren %23,7), 2025eko lehen hiruhilekoan.

2024ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, termino erlatiboetan, hazkundea izan da Araban (%16,9); izan ere, 2025eko lehen hiruhileko honetan, 32 lizentzia gehiago eman dira aurreko urteko azken hiruhilekoan baino. Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, hiruhilekoan emandako lizentzien kopuruak behera egin du, eta balio erlatiboetan jaitsiera hori %4,2koa eta %8,5koa izan da hurrenez hurren.


Urte arteko datuei erreparatuta, Araban izandako gorakadak (%22,1: 40 lizentzia gehiago) eta Bizkaian izandakoak (%1,3: 6 lizentzia gehiago) ez dute 77 lizentziako beherakada gainditzea lortu Gipuzkoan (-%25,3), eta 31 lizentziako galera eragin dute EAE osoan.

**Obra handiko lizentzia gehienak, ohi bezala, EAEn %88 gainditzen duten birgaitze-obrekin lotzen dira.**

Hiruhileko honetan ere, obra handiko lizentzia gehienak (%88,3) **birgaitzeko** obrei dagozkie. **Eraikuntza berrirako** lizentziak %10,3 dira, ea gainerako %1,4 **eraispen**-lizentziei lotuta dago.

#### 1. Grafikoa Obra handien lizentzia kopurua, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2025eko 1. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta Ehuneko bertikalak)



**Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistika. 2025eko 1. hiruhilekoa**

Kopuru absolutuetan, **birgaitzeko** lizentziak 825 izan dira 2025eko lehen hiruhileko honetan, hau da, 25 lizentzia gutxiago aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-%2,9) eta 46 lizentzia gutxiago (-%5,3) 2024ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta.

**Eraikuntza berriko** 96 lizentziak, urteko lehen hiruhileko honetan, duela hiru hilabete baino 10 lizentzia gehiago (%11,6) eta duela hamabi baino 14 lizentzia gehiago (%17,1) dira. Bestalde, **eraiste**-obrekin lotutako lizentziak (13 lizentzia 2025eko lehen hiruhilekoan) 8 unitatetan murriztu dira (-%38,1) 2024ko azken hiruhilekoan zenbatutakoak, eta lizentzia bat gehiago dira duela hamabi hilabeteko datuarekin alderatuta (%8,3, termino erlatiboetan).



Emandako lizentzien lurralde-azterketak ñabardura txikiak egiten dizkio portaera orokor horri, dagokion lurralde historikoaren arabera.

Termino erlatiboetan, Bizkaia da emandako **birgaitzeko** obra handiko lizentzien ehunekorik handiena duen lurraldea (mota horretako 444 lizentziak lurraldean emandakoen %91,4 dira). Araba da tasa txikiena duen lurraldea: birgaitzeko 179 lizentzia eman dira, hau da, emandako guztizkoaren %81,0. Gipuzkoako egoera Bizkaiko datuetatik gertuago dago: lurraldean emandako obra handiko lizentzien %89,0 birgaitzekoak dira (202 lizentzia).

Araban, nahiko nabarmena da **eraikuntza berriko** lizentzien kopurua: lurraldeko lizentzien %17,2 dira. Gipuzkoan emandako lizentziak (%8,4) eta Bizkian emandakoak (%8,0) baino ia bederatzir puntu portzentual gehiago dira. **Eraisteko** lizentziak Gipuzkoan nabarmentzen dira (%2,6), Bizkaian ia ez dute pisurik (%0,6) eta Araban %1,8) EAEko batez bestekotik gertu daude (%1,4).

Hiruhilekoko bilakaerak ere ñabardurak ditu lizentzia motetan, lurralde historikoen arabera. **Eraikuntza berriko** lizentzien kopuruak behera egin du Bizkaian (-%13,3, 6 lizentzia gutxiago); Gipuzkoan, berriz, gora egin du pixka bat (%18,8, 3 lizentzia gehiago) eta, neurri handiagoan, Araban (%52,0, 13 lizentzia gehiago).

**Birgaitzeko** lizentziei dagokienez, behera egin dute Bizkaian (-%7,3, 35 lizentzia gutxiago) eta Gipuzkoan (-%5,6, 12 gutxiago), baina Araban bakarrik igo dira; %14,0 (22 lizentzia gehiago).

Bestalde, **eraispen**-lizentziak gutxi aldatzen dira datu absolutuekin alderatuta, baina nabarmenago ikuspegi erlatibizatutik. Nolanahi ere, hiru lurraldeetan galdu dira mota horretako lizentziak azken hiruhilekoan. 4 lizentzia gutxiago Bizkaian (-%57,1); 3 gutxiago Araban (-%42,9) eta 1 gutxiago Gipuzkoan (-%14,3),

Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, **birgaitzeko** lizentziak 37 unitate igo dira Araban (%26,1), eta 9 unitate galdu dira Bizkaian (-%2,0) eta 74 unitate Gipuzkoan (-%26,8).

**Obra berriko** lizentziak hazi egin dira hiru lurraldeetatik bitan: 4 lizentzia gehiago eman dira Araban (%11,8) eta 13 gehiago Bizkaian (%50,0); aldiz, 3 lizentzia gutxiago eman dira Gipuzkoan (-%13,6). **Eraispen**-lizentziek, arestian aipatutako berezitasunarekin, unitate bat galdu dute Araban, bi unitate irabazi dituzte Bizkaian eta lizentzia-kopuru berari eutsi diote Gipuzkoan azken hamabi hilabeteetan.



Antzeko analisi bat egin daiteke ikuspegi berri batetik: **urteko datu metatuetan** oinarrituta, denboran aldaketa egonkorragoak eskaintzen baititu. Datu horiek azken lau hiruhilekoetan (erreferentziakoa barne) emandako lizentzia guztiak kontabilizatzen dituzte, aurreko urteko hiruhileko beretako urteko metatuarekin alderatuz. Beraz, hiruhileko honetan 2024ko, bigarren hiruhilekotik 2025eko lehen hiruhilekora metatutakok kalkulatzeko da, eta aurreko urteko metatuarekin alderatzen da: kasu honetan, 2023ko bigarren hiruhilekotik 2024ko lehen hiruhilekora.

**EAEn, lizentzien multzoak gora egin du urte arteko metatuan. Hazkunde hori, neurri handiagoan edo txikiagoan, hiru lizentzia motetan ikusten da.**

2025eko lehen hiruhilekoan, azterketa metatu horretan ikusten da, termino absolutuetan, obra handiko lizentzien kopuruak gora egin duela EAEn 107 unitatetan (%2,9 termino erlatiboetan), adierazitako metatuen bolumenetan.

## 2. Taula Obra handien lizentzia kopurua, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2025eko 1. hiruhilekoko urteko metatutako datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urte arteko aldakuntza absolutua eta ehunekotakoa)

| OBRA HANDIETAKO LIZENTZIAK |                   | 2024ko 2. Hiruhilekotik 2025eko 1. Hiruhilekora metatua |             | 2023ko 2. Hiruhilekotik 2024ko 1. Hiruhilekora metatua |             | Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi beraren aldean |               |
|----------------------------|-------------------|---------------------------------------------------------|-------------|--------------------------------------------------------|-------------|------------------------------------------------------------------|---------------|
|                            |                   | Kopurua                                                 | %           | Kopurua                                                | %           | Kopurua                                                          | Ald. %        |
| EAE                        | <b>Guztira</b>    | <b>3.835</b>                                            | <b>%100</b> | <b>3.728</b>                                           | <b>%100</b> | <b>107</b>                                                       | <b>%2,9</b>   |
|                            | Eraikuntza berria | 360                                                     | %9,4        | 357                                                    | %9,6        | 3                                                                | %0,8          |
|                            | Birgaitzea        | 3.410                                                   | %88,9       | 3.321                                                  | %89,1       | 89                                                               | %2,7          |
|                            | Eraispena         | 65                                                      | %1,7        | 50                                                     | %1,3        | 15                                                               | %30,0         |
| Araba                      | <b>Guztira</b>    | <b>820</b>                                              | <b>%100</b> | <b>757</b>                                             | <b>%100</b> | <b>63</b>                                                        | <b>%8,3</b>   |
|                            | Eraikuntza berria | 124                                                     | %15,1       | 131                                                    | %17,3       | -7                                                               | -%5,3         |
|                            | Birgaitzea        | 677                                                     | %82,6       | 608                                                    | %80,3       | 69                                                               | %11,3         |
|                            | Eraispena         | 19                                                      | %2,3        | 18                                                     | %2,4        | 1                                                                | %5,6          |
| Bizkaia                    | <b>Guztira</b>    | <b>2.064</b>                                            | <b>%100</b> | <b>1.897</b>                                           | <b>%100</b> | <b>167</b>                                                       | <b>%8,8</b>   |
|                            | Eraikuntza berria | 152                                                     | %7,4        | 135                                                    | %7,1        | 17                                                               | %12,6         |
|                            | Birgaitzea        | 1.894                                                   | %91,8       | 1.748                                                  | %92,1       | 146                                                              | %8,4          |
|                            | Eraispena         | 18                                                      | %0,9        | 14                                                     | %0,7        | 4                                                                | %28,6         |
| Gipuzkoa                   | <b>Guztira</b>    | <b>951</b>                                              | <b>%100</b> | <b>1.074</b>                                           | <b>%100</b> | <b>-123</b>                                                      | <b>-%11,5</b> |
|                            | Eraikuntza berria | 84                                                      | %8,8        | 91                                                     | %8,5        | -7                                                               | -%7,7         |
|                            | Birgaitzea        | 839                                                     | %88,2       | 965                                                    | %89,9       | -126                                                             | -%13,1        |
|                            | Eraispena         | 28                                                      | %2,9        | 18                                                     | %1,7        | 10                                                               | %55,6         |

Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistika. 2025eko 1. hiruhilekoa




Hazkunde hori Araban (63 lizentzia gehiago: %8,3) eta Bizkaian (167 lizentzia gehiago: %8,8) gertatu da. Gipuzkoan, aldiz, 123 lizentzia gutxiago izan dira, eta horrek aztertutako aldian lizentzien %11,5 galdu dituela esan nahi du.

Ohikoa den bezala, aztertzen diren eremu geografiko guztietan, ematen diren **birgaitzeko** obra handiko lizentziak beste bi modalitateen gainetik daude: %88,9 dira, EAEn, %91,8 Bizkaian, %88,2+ Gipuzkoan eta %82,6 Araban.

## 2. Grafikoa Obra handien lizentzia kopurua, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2025eko 1. hiruhilekoko urteko metatutako datuak

(Balio absolutuak eta Ehuneko bertikalak)



**Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistika. 2025eko 1. hiruhilekoa**

Lizentzia-motaren arabera bilakaera-azterketak adierazten du EAE osoan modalitate guztiak hazi direla. Hala, **birgaitzeko** 89 lizentzia gehiago (%2,7ko igoera erlatiboa), **eraisteko** 15 lizentzia gehiago (%30,0) eta **eraikuntza berriarako** 3 lizentzia gehiago (%0,8) zenbatu dira.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaian ere igo egin dira hiru lizentzia motak: 146 gehiago dira **birgaitzekoak** (%8,4), 17 gehiago **eraikuntza berrikoak** (%12,6) eta 4 gehiago **eraispeneak** (%28,4).

Araban, lurralde osoko saldo positiboa **birgaitze**-obretarako 69 lizentziek (%1,3) eta **eraispene**tarako lizentziek (%5,6) justifikatzen dute, **eraikuntza berriarako** 7 lizentziaren galera konpentsatzea lortzen baitute (-%5,3).


Gipuzkoako saldo negatiboa, berriz, **birgaitzeko** 126 lizentzia (-%13,1) eta **eraikuntza berriko** 7 lizentzia (-%7,7) galdu direlako gertatu da. Lurraldean, **eraisteko** lizentziak soilik 10 unitatetan hazi dira (%55,6).

*Azken finean, 2025eko lehen hiruhilekoan obra handiko lizentzien emakidek behera egin dute Euskadin, Bizkaian eta Gipuzkoan izandako beherakadaren ondorioz, eta horrek ezin du konpentsatu Arabako hazkundera.*

Bilakaerari dagokionez, nabarmendu den bezala, EAEn obra handiko lizentzien kopuruak beherakada txiki bat izan du, aurreko hiruhilekoan gainditutako beheranzko joerara itzuliz.

2023ko urtariletik martxora erregistratutako 1.120 lizentzietatik 1.079 lizentzietara igaro zen urte hartako bigarren hiruhilekoan, eta hirugarren hiruhilekoko 741 lizentzietaraino jaisten jarraitu zuen, Errekuperazioa 2023ko laugarren hiruhilekoan hasi zen, 943 lizentziarekin; 2024ko lehen hiruhilekoan 965 lizentziarekin jarraitu zuen, eta 2024ko bigarren hiruhilekoon 1.000 lizentzia inguru eman ziren (994 lizentzia). 2024ko hirugarren hiruhilekoan jasotako 950 lizentziek beherakada txiki bat ekarri zuten, laugarren hiruhilekoan pixka bat suspertu zena (957 lizentzia). Baina 2025eko lehen hiruhilekoan tasa negatiboa erregistratu da berriro kopuru horretan, obra handiko 934 lizentzia eman baitira.

### 3. Grafikoa Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE 1998-2025



**Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistika. 2025eko 1. hiruhilekoa**

Lurraldeka, Gipuzkoak aurreko hiruhilekoan antzemandako beheranzko joerari eutsi dio (nahiz eta pixka bat ñabartu den), eta Bizkaiak azken urtean zenbait zerra-hortz izan ditu, hazkundera eta azken lau hiruhilekoetan izandako jaitsierak tartekatuz. Araban bakarrik gertatu da nolabaiteko hazkundera, eta horrek aurreko joera negatiboa eten du.

## 2. ESLEITUTAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERAREN HELMUGA <sup>1</sup>

*Bizitegi-erabilerarako ez diren obra handiko lizentziek behera egin dute (hiruhileko eta urte arteko konparazioan), bizitegi-erabilerarako lizentzien hazkundea gaindituz (bi aldi konparatuetan).*

Aurreko kapituluari adierazi den bezala, 2025eko lehen hiruhilekoan obra handiko 921 lizentzia eman dira eraikuntza berriko eraikinak egiteko (96 lizentzia) edo lehendik dauden eraikinak birgaitzeko (825 lizentzia). Horietatik, 665 lizentzia (%72,2) **bizitegi-erabilerarako** proiektuei lotuta daude, eta 256 lizentzia (%27,8) **bizitegi-erabilerarako ez** diren proiektuei lotuta daude<sup>2</sup>.

### 3. Taula Obra handien lizentziak, obraren xedearen arabera. 2025eko 1. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urte arteko aldakuntza absolutua eta ehunekotakoa)

| OBRA HANDIETAKO LIZENTZIAK                           | 2025eko 1. hiruhilekoa |             | Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza |              | Aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko aldakuntza |              |
|------------------------------------------------------|------------------------|-------------|--------------------------------------|--------------|----------------------------------------------------|--------------|
|                                                      | Kopurua                | %           | Kopurua                              | Ald. %       | Kopurua                                            | Ald. %       |
| <b>Guztira</b>                                       | <b>921</b>             | <b>%100</b> | <b>-15</b>                           | <b>-%1,6</b> | <b>-32</b>                                         | <b>-%3,4</b> |
| Bizitegi-erabilera                                   | 665                    | %72,2       | 39                                   | %6,2         | 10                                                 | %1,5         |
| Ez bizitegi-erabilera                                | 256                    | %27,8       | -54                                  | -%17,4       | -42                                                | -%14,1       |
| • Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | 18                     | %7,0        | -13                                  | -%41,9       | -12                                                | -%40,0       |
| • Industria eta energia                              | 39                     | %15,2       | -28                                  | -%41,8       | -8                                                 | -%17,0       |
| • Zerbitzuak                                         | 199                    | %77,7       | -13                                  | -%6,1        | -22                                                | -%10,0       |

*Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistika. 2025eko 1. hiruhilekoa*

2025eko lehen hiruhilekoan eman diren bizitegi-erabilerarako ez diren obretarako lizentzien sektore-xedeari dagokionez, ohikoa den bezala, **zerbitzuen sektorerako** lizentziak dira nagusi: 199 lizentzia, bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzia guztien %77,7.


**Industriaren eta energiaren sektorerako** bideratutako 39 lizentziak guztizkoaren %15,2 dira, eta gainerako %7,0ak (18 lizentzia) **lehen sektorearen** erabilerari eragiten dio.

<sup>1</sup> Bigarren kapitulu honetan egiten den azterketan, eraipen-lizentziak baztertu egin dira, egikaritu ondoren ez baitute inolako erabilerarik; izan ere, geroago eraikiz gero, beste lizentzia-eskaera bat izapidetzea eskatuko litzateke.

<sup>2</sup> Erabilera mistoko eraikinak (bizitegi-erabilerarako eta bizitegi-erabilerarako ez direnak) bizitegi-erabileraren kategorian sartzen dira.

#### 4. Grafikoa Obra handien lizentziak, obraren xedearen arabera. 2025eko 1. hiruhilekoa

(Balio absolutuak)



*Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistika. 2025eko 1. hiruhilekoa*

Hiruhileko honetan, 921 lizentzia hartu dira kontuan eraikuntza berriko lizentziak eta birgaitzeko lizentziak. Beraz, aurrekok hiruhilekoan baino ehuneko bi puntu gutxiago (15 lizentzia gutxiago: -%1,6) eta duela hamabi hilabete emandako lizentzien aldean ehuneko hiru puntu baino gehiago (32 lizentzia gutxiago: -%3,4).

Lizentzia horietarako aurreikusitako bi erabileren hiruhilekoen eta urte arteko bilakaerak antzekoak izan dira: bizitegi-erabilerarako obretarako lizentziak gehitu egin dira eta bizitegi-erabilerarako ez diren obretarako lizentziak murriztu.

**Bizitegi-erabilerari** dagokionez, azken hiruhilekoan 39 lizentzia gehiago eman dira (%6,2 termino erlatiboetan) eta azken urtean 10 lizentzia gehiago (%1,5).

Bestalde, **bizitegi-erabilerarako ez** diren lizentziei dagokionez, hiruhilekoko beherakada 54 lizentziakoa izan da (-%17,4) eta, aurreko hamabi hilabeteekin alderatuta, 42 lizentziakoa (-%14,1).

